

“Inoizko aurrekonturik handienak”



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Jaurlaritzak 2022 urterako prestatuko egitasmoa “inoizko aurrekonturik handienak” direla esanez aurkeztu du. Hala da bai, zenbakiei bakarrik begiratuz gero. Baina handiak izanagatik, ez dute zertan nahikoak eta egin daitezkeen handienak izan beharrik. Ezberdina litzateke “aberastasuna inoiz ez bezala banatuko da 2022an” lerroburua, hautsak harrotuko lituzke zalantzarik gabe. Baina ikusi dugunez, gehien dutelako gehien eman beharko luketenez, ez dute ezer arriskuan ikusi oraingoan ere.

Nafar gobernuak, bereak “herriaren aurrekontuak” direla aldarrikatu du. Agian bai, diru sarrerak, bereziki, langileen ekarpenetan oinarritzen direlako. Gastu publikoa indartuko da, baina ez fiskalitatea aldatuz diru gehiago bildu delako. Zorpetzea handituko da eta Europako funtsak erabiliko dira. Bi kasutan, itzuli beharreko dirua. Beraz bai, herriak ordainduko dituen aurrekontuak, eta ez horregatik bidezkoak.

Madriletak inbertsioak sekulan ez bezalakoak izango direla iragarri dute. Argindarraren garestitzea mugatzeko asmoetan amore eman, eta etxebizitzaren merkatuan benetan esku hartzeko aukera baztertu berri duenean. Gastu publikoaren bidez gauzak aldatu eta arazoak konponduko ote diren da kontua. Ezinezkoa, esku hartze publikoari eta ekonomia-aren kontrol sozialari uko egiten bazaio.

Aldea dago sistema hau jasangarria egitearen, eta jasangarria den sistema bat egitearen artean. 2008ko krisiaren testuinguruan, neurri eta erreforma ekonomikoz mozorrotutako erreforma politiko oso bat inposatu ziguten. Publikoa, osagarria ez baizik merkaturaren menpeko egin zuten. Arau nagusia hori den bitartean, aurrekontuekin hitz jokoak egin daitezke, baina benetako aldaketa sozialik ez. ●



Ikasle kritikoak? Bai zera!

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ikasleek konpetentziak garatzea eta pentsamendu kritikoa jorratzea zein garrantzitsua den behin eta berriz azpimarratzen duten berbere kontrako norabidean diseinatzen dituzte hezkuntza planak. Espainiako Gobernuak prestatutako LOMLOE lege proiektuak Filosofia ikasgaia baztertzen zuela bagenekien, baina azken zirriborroan are handiagoa da sarraskia, lotsagarriki murriztu dituzte Filosofia, Balio Etikoak eta Psikologia orduak. Orain Hego Euskal Herriko gobernuak dute horri buelta emateko giltza.

LOMLOEren zirriborroak zioen Filosofiak DBHn hautazko ikasgai izateari utziko ziola –erabaki larria–, baina Batxilergoan ikasturte bakarrean ez, bitan izango zela derrigorrezko. Letra txikia irakurtzea falta zen: ordu gutxiago izango ditu ikasgaiak Batxilergoan eta beraz, praktikan ez da eskaintza handituko. Berdin Balio etikoak ikasgaiarekin: DBHn derrigorrezko izaten jarraituko duela saldu zuten, baina azken zirriborroak azaleratu du DBHko lau ikasturteetan ez, azken ikasturtean baino ez dela emango ikasgaia. Psikologia ikasgaia zuzenean desagertu egingo da Batxilergoko bigarren mailako hautazkoen zerrendatik.

Filosofia irakasleak biltzen dituen Agora elkarteak datutara ekarri du LOMLOEren proposamena, eta oso adierazgarria da. Ikasle batek Lehen Hezkuntza osoan ematen dituen orduetatik, %0,55 dedikatuko dizkio gogoeta etikoari –gainera azken ikasturtean baino ez, berandu eta gutxi–; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan, orduen %0,83 dedikatuko dizkio gogoeta etikoari, eta batere ez filosofiari. Gaur egun pentsamenduari derrigorrezko zazpi ordu eta hautazko hamaika eskaintzen bazaizkio DBHn (18 ordu guztira), proposamen berrian derrigorrezko bost eta hautazkorik batere ez zaizkio eskainiko (5 ordu guztira). Azkenik, Batxilergo osoan orduen %10 eskainiko dizkio ikasleak filosofiari.

Hipokrisia nabarmena da. “Konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoa” eta “herritartasunerako konpetentzia” dira zortzi konpetentzia gakoetako bi, ikasleek pentsatzen, gogoetatzen eta kritiko izaten ikastea funtsezkoa dela diote aditu, agintari eta joera guztiek, egungo eta etorkizuneko erronkekin ezinbestean beharko dituztela pentsamendu autonomoa duten haur eta gazteak, aurreko pentsalariek utzi dizkiguten hausnarketa eta begiradak, baina bestelakoa da diseinatzen den curriculum, bestelakoak benetako helburu eta asmoak.

Agora elkarteak presio kanpaina abiatu du: Hego Euskal Herriko gobernuak eskatu die curriculumaren gainean duten eskumena baliatzeko –Espainiako Gobernuak gutxieneko curriculum zehazten du, baina eskua sartzeko aukera izan badute erkidegoetako administrazioek–, Balio etikoak, Filosofia eta Psikologia ikasgaiak mantendu ditzaten gurean, eta ordu kopuru duinarekin. Euskal Herriko administrazioek ez dute filosofiaren aldeko apusturik egin izan, baina unea da erakuts dezaten zer nolako hezkuntza, zer nolako herritarrak eta zer nolako etorkizuna bultzatu nahi dituzten. ●